

## Langileen eukara ikasteko nahiari Justizia Sailak murrizketekin erantzuten dio

---

### *Euskara ikastaroak: 2017/2018ko ikasturteko deialdi osagarria*

Deialdia argitaratu zutenean LABek atera genuen informazio orrian salatu bezala, murrizketak dira elementu aipagarriena Justizia Sailan daraman euskara politikan, nahiz eta zuzendariak esan ezetz, ez dutela gutxitu dirua euskara ikastaroentzat.

Bitarteko langileei aukerak zabaldu badizkiete ere, eskabideak onartzeko ala ez onartzeko baldintzak izugarri zorrotzu dituzte. Horiek horrela, honako datuek nabarmendu behar ditugu:

- Ikastaroren bat eskatu duten pertsona kopurua: **48**;
- Eskabideari uko egindakoak: **1**;
- 47 eskatzailetatik 36ri baino ez diote eman ikastaroren bat, honela banatuta:
  - Liberazioak: **1**;
  - Lanorduetan ikasteko bi orduko ikastaroak: **31**;
  - Lanorduz kanpoko bi orduko ikastaroak: **4**
- Ikastaroa ukatzeko arrazoiak honako hauek dira:
  - Ikasturtearen lehen lauhilekoan 5 orduko liberazioan aritu izana: **21**;
  - Deialdi osagarrian eskaera berriak onartzeko ezarritako baldintzak ez betetzea: **7**;
  - Lanpostuari dagokion maila/hizkuntza-eskakizuna lortuta iztea, nahiz eta oraindik egiaztatuta ez izan; **4**
  - Gaur egun Justizia Administrazioan lan ez egitea: **4**;
  - Zerbitzu-betebeharrak egotea: **3**;
  - Eskatutako modulua deialdiaren eskaintzarekin bat ez etortzea: **1**.
- Inolako ikastarorik eman ez dieten langile kopurua: **11**.

Datu guztietan deigarriena da lehendabiziko lauhilekoan liberatuta ikasten egon direnei bigarren liberazio bat ez ematea. Baina, zer nolako pedagogia txatxua da

hori!!! Onenean ere, datorren ikasturtean agian berriro ahal izango dute 5 orduko ikastaroan ikasi, bestela 2 ordukoekin konformatu behar.

Hainbat ikerketen arabera, euskara dakitenen kopuruak gora egiten duen arren kaleko erabilera behera doa. Aspaldi honetan erakunde ugariaren mezu ofiziala da erabileran jarri behar direla arreta eta baliabideak eta ez da LAB izango horrekin bat egiten ez duena.

Hala ere, erabili ahal izateko ezagutu behar da, eta horretarako ikastea ezinbestekoa da. Bada, ematen du Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila guztiz aurkako norabidean abiatu dela eta baliabideak ugaritu ordez, oztopoak eta trabak besterik ez ditu ipintzen dirua aurrezteagatik.

Nola lortuko dugu, bada, gero eta jende gehiagok euskara erabiltzea ez badiegu ematen ikasteko ere aukerarik. Argi baino argiago frogatzen du honek guztiak gauza bat dela Eusko Jaurlaritzak hedabideetan ematen duen mezua eta oso bestelakoa errealitatean egiten duena.

Ostiralean bidali genizkizuen ebazpena eta zerrenda EIZUn ere topatzea duzue.

**ERREKLAMAZIOAK EGITEKO EPEA: 20 EGUN NATURAL hilaren 20an hasita.**

2018-01-22